

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Elementu material garrantzitsuenak hurrengoak dira:

1. Kapitala; dirua beharrezkoa da enpresa martxan jartzeko, kapitala lortzeko mailegu bat hartuko dugu bankutik. Horrez gain, Durangoko Udalari diru-laguntzak eskatuko diegu eta foru aldundiei.
2. Bezeroak edo bezeroen dirua, bezeroek dirua ordainduko dute gure zerbitzua kontsumitzeagatik.

Garraio elementuak, funtsezkoak dira produktuak garraiatzeko. Adibidez: bizikleta edo motorren bat. Lokala; honetan ofizina egongo da eta oso garrantzitsua izango da. Hemen, egongo dira enpresaren garraioak, bezeroen arretara dagoen pertsona. Gure bulegoa herriaren erdigunean jarriko dugu, kurutziaga kalean alokatutako lokal batean.

Gure garraioak guk alokatutako Abadianoko pabeioi batean gordeko ditugu, eta gure helburua gure langile guztiek lan egin eta gero, autoak, bizikletak eta motorrak pabeioiera eramatea da, hurrengo goizean pabiloian prest edukitzeko.